



Sarobeko erakusketa ederra ikusteko azken egunak


"La trinchera infinita" filmaren emankizunarekin, amaiera emango diete Urrietako arte eszenikoen 25. urteurreneko ekitaldiei / 10-11

Asier Nieblaren omenezko artelana

"Puertas" izeneko erakusketaren ardatza genero indarkeria da. Asier Niebla gogoan hartu dute, datorren astean Urrietako Lekaion zabalduko dutena / 3



Andoaingo Olagain txistulari taldeari agur esan diote Otamendik eta Martinez de Lezeak / 6-7



Abenduaren 16an hasita, Andoaingo Udal egutegia banatzeari ekingo diote / 8-9



Denboraldi bikaina burutzen ari dira Urnietako KE eskubaloia taldeko senior mailako neskak / 12

Ernaitza liburudenda

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

Eguberritako eskaintza bikaina

**Zumea, 9. Andoain. 943 592 459
ernaitza@yahoo.com**

Kultur jardueren bideo sorta zabala



'Rikardo Arregi irakurtzen' ekimena



'Soinuen Begiradak' ikuskizuna



Olagainen 40. urteurreneko emanaldia



Santa Zezilia eguneko kontzertua



Dimension agentzia, Sandra Garayoa artista, Urnietako Udala eta Asier Nieblaren senitarteak elkartu ziren erakusketaren berri emateko agerraldian. AIURRI

Aldarrikapena, artearen bidez

Asier Nieblaren gertaera eta heriotza artelan bilakatu du Sandra Garayoa artistak, Dimension agentziaren eskariz. "Puertas" izeneko erakusketaren zati bat baino ez da, datorren astean Urnietako Lekaion ikusgai izango dena

Abenduaren 19an irekiera ekitaldia

Indarkeria matxista ikustarazteko eta arazo larri horren gainean hausnartzeko Dimension agentziak proiektu artistikoa landu zuen, biktima bakoitzeko artelan bana eginez. Espainian ofizialtzat hartzen diren 47 biktima harago joan eta 48. biktima dagokion artelana Asier Niebla urnietarrari eskaini diote, hura ere indarkeria matxistaren biktima dela aitortuz. Sandra Garayoa izan da Nieblaren omenezko atearen egilea. Erakusketa Euskal Herrian eta Espainian ikusgai egon eta gero, Urnietara iristear da. Egun hauetan Zaragozan ikusgai dago, eta abenduaren 19tik urtarrilaren 7ra bitarte Lekaion. Erakusketaren irekiera ekitaldia abenduaren 19rako iragarrita dago, iluntzeko 19:00tan hasita. Erakusketa sustatu duten eragileak bertan izango dira.

Jon Ander Ubeda URNIETA
Asier Nieblaren kasua epaitegietan bere bidea egiten ari da. Gaur gaurkoz ez da epaiketa gertu ikusten, eta bitarte horretan erasotzailea espetxean dago. Familiak justizia eskatuko du, indarkeria matxistaren argudioa oso tinko defendatuz. Are gehiago, legea berrikusi eta Asier biktimatzat hartzea eskatzen ari dira. Bien bitartean, Urnietan familiak babes handia jaso du bizilagunen eta Udalaren aldetik. Datorren abenduaren 19an "Puertas" erakusketa zabalduko dute, Dimension agentziaren bitartez gauzatu dena. Estatu mailan ikusgai izan eta gero, egitasmoa Urnietan amaituko da. Asier Nieblaren herrian. Justizia epaitegietan bere bidea egiten ari den bitartean, artearen bitartez aldarrikapen berdina egiten ari dira. Justizia eskatzea.

Erakusketaren aurkezpen ekitaldiko adierazpen nabarmenenak



JON MARTIJA
DIMENSION

"Gizarte mailan aldatu beharreko gauzak aldarrikatzeko egitasmoak egiten ditugu, eta indarkeria matxistaren arazoa benetan gogorra iruditzen zaigu. Hildakoena zenbatze hutsa dirudi, eta ez gaude ados. Hildakoen atzean pertsonak daude, deuseztatutako familiak eta egoera latz ugari".




SANDRA GARAYOA
ARTISTA

"Artelanean bizitza bihotzaren eta landareen bidez irudikatu nahi nuen. Bihotzarekin edozein pertsona identifikatzea bilatu nahi nuen, emakumezko edo gizonezko izan. Indarkeria matxista sugearekin irudikatu nuen, pertsona edo bihotz horri presioa eragiten dion heinean".



MIKEL PAGOLA
ALKATEA

"Deialdi berezia egin nahi dugu ez soilik erakusketa ikustera joateko, baizik eta parte hartzeko. Ate zuri bat ipiniko dugu Lekaion, eta bertatik igarotzen diren bisitariak euren sentimenduak bertan adierazteko aukera izango dute. Beraz, herritarrak ikustera eta parte hartzera animatu nahi ditut".



JUANJO NIEBLA
ASIER NIEBLAREN ANAIA

"Asier Niebla heriotzera eraman zuen eraso genero indarkeriatzat har dadin borrokan ari gara. Asierren eta biktima guztien alde gaude, gizonezko ala emakumezko izan. Legea berrikustea eskatzen dugu eta biktimatzat har dadila edozein pertsona, emakumezkoa ala gizonezkoa izan".



POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Sei hilabete, lurreratu ezinik

Abenduaren 15ean sei hilabete beteko dira PSE-EE eta EAJ-PNVren akordioari esker bi alderdiak udal gobernuan sartu zirenetik. Negoziazioak isilean eman zituzten eta lortu zuten akordioaz ezer gutxi eman zuten argitara. Arduren banaketaz gain, ezer gehiago ez.

Lehen ehun egunak bete zituzten eta orduan egin genuen balorazioan ohartarazi genuen udal gobernuak bizi zuen noraezaz. Gobernu planik ez, eta aurretik martxan zeuden proiektuak zirela indarrean zeuden ekimen bakarrak.

Eta horrela iritsi gara lehen sei hilabeteak betetzera, urte erdi bat. Balorazio sakonak egiten hasteko ordua da. Amaitu dira "ikasten gaude" eta "hasi besterik ez gara egin" eta gisa horretako erantzunak. Legegintzaldi batean berebiziko garrantzia du lehen hilabeteetan egiten den lana, bertan finkatzen delako udal gobernu horren bide-orria, lehentasunen agenda; finean, gobernu plana.

Eta zein da lehen sei hilabete hauetatik ondorioztatu dezakeguna? Galdera horri erantzunez, kezka egiteko modukoa den hausnarketa egiten dugu. Aurreko agintaldian oposizioan zeudenean defendatzen zituzten ideiak alboratu eta beste

irizpide batzuk defendatzen dituzte orain hainbat gaietan, gobernuko bi alderdien arteko tira-bira eta desadostasunak agerikoak dira eguneroko jardunean. Gai honek arazoak eragiten ditu hainbat esparruetan, bizefalia edo bi udal gobernu egongo balira bezala jokatzeko baitute askotan.

Lidergo falta nabaria da departamentu askotan. Honek dituen ondorioekin; erreferentzialtasun falta eragile sozial, kultural edo norbanakoentzat, eztabaida politiko falta batzordeetan... kezkarria da oso lidergo falta honek epe erdi luze batera begira utzi ditzakeen ondorioak.

Gaia sakontzeko aldizkari bat egin eta etxe guztietara banatu nahi izan dugu. Umore ikutu bat eman nahi izan diogu, egoera kezkarria bada ere, egoera zein den ulertzeko baliagarria izan daitekeelakoan. 6.700 ale atera ditugu, eta ostegunetik aurrera banatuko ditugu etxez etxe.

EH Bilduk orain arte bezala lanean jarraituko du. Oposizioari dagokion kontrol lana eginez, baina gure proposamenak eta lehentasunak zeintzuk diren zehaztuz. Norabide horretan, 2020ko aurrekontuetarako gure lehentasunak jaso daitezen lan egingo dugu.



IRITZIA

XABIER LASA ANDOAIN

Euskara, bigarren mailako kultur ondare?

Azken boladan indarrean dabil kultur ondarearen kontzeptua, zorionez. Gasteizko legebiltzarrak, berriki, kultura inmateriala babesteko Euskal Kultura Ondarearen Legea onartu izanak ere lagundu du horretan. Gaia hizpide hartuta, egun ere sumatzen segitzen da joera edo mentalitate jakin bat tarteka, iraganean euskal gizartearen elite eta gidari zen zati ez txiki batek (intelektualak, politikoak, administrazio ezberdinetako teknikariak...) erakusten zutena. Alegia, kultura inmateriala (hizkuntza, ahozko tradizioa, dantzak, auzolanaren filosofia, usadioak...) eta kultura materiala (eraikuntza industrialak, artistikoak, erlijiosoak...) bereizteko joera. Ez agian diskurtso publikoen arloan, baina bai praxian. Batak eta besteak elkarrekin zerikusirik edukiko ez balute bezala. Ondare materiala ulertzeko, ondare inmaterialaren premiarik ez balego bezala.

Komunikabide batean lan eginez aktualitatea derrigor segi behar duenari begi bistan jartzen zaizkio bereizketak horren adibide adierazgarriak, nahi baino gehiagoetan. Gehiegi ez luzatzearen, aipa ditzaket bi adibide ilustragarri, Andoainen azken

aldian burutu diren bi ekitaldi, ondare kulturala aztergai izan dutenak.

Ondare historikoa berreskuratzeko orduan kultur materiala eta inmateriala bikain uztartzen dakien Burdina elkarteak bultzatuta, irailean bere kide Manu Izagirre hil berriari gorazarre egiteko ekitaldia antolatu zuten Basteron. Izagirre, Aldundiko kultur ondare saileko teknikaria izateaz gain arkeologo konprometitua eta langilea zen aldetik, Gipuzkoan autoritatetzat jo daiteke kultur ondare materiala babestearen arloan. Ia hiru ordu iraun zuten ekitaldian, hainbat gonbidatuek (arkeologoak, historialariak, antropologoak, Aldundiko kargu politikoak...) hartu zuten hitza. Gipuzkoarrek mendeetan landutako burnia, harria, egurra... eta eraikitako baserriak, burdinolak, eleizak... izan zituzten aztergai, entzuleon jakintza ederkiki asko zabalduz. Gipuzkoako kultur ondare aberatsa goraiatu zuten guztiek ere, eta azpimarratu zeinen pribilegiatuak izan diren parte hartzeagatik ondare horren berreskuratze eta argitaratze prozesuan. Gaztelania garbian denek ere. Muzin egin zioten Gipuzkoako geure arbaso

horiek beren kultur egitasmoak garatzerakoan eta beren ezagutzak transmititzeko naturalki erabili izan zuten/duten komunikazio tresnari, hizkuntzari.

Orain aste batzuk, Aldundiak antolatuta, Leitzaran-Plazaolako bide berdearen errealitate turistikoa kudeatzeko ereduari buruzko lan-jardunaldietan ere goratu egin zuten arbasoek utzi diguten kultur ondare; historian zehar artzainen, ikazkinen, harginen, burnigileen... jarduna goraiatu zen, eta baita Leitzaran-Plazaola inguruko, Nafarroako zein Gipuzkoako herritarren arteko harreman historikoak. Eta noski, zehaztu ere, zehaztu zuten egungo instituzioek erabateko konpromisoa hartuta daukatela kultur ondare guzti hori berreskuratzeke, sustatzeko, argitan jartzeko...

Gaztelania izan zen jardunaldi horien komunikazio tresna, nagusiki.

Zer da eta, goratu beharreko kultur ondarearen uniberso guzti horrek daukan elementurik aberatsena, hizkuntza alegia, bigarren mailakotzat jo zen praxian! Sakoneko kontraesan argiagorik, ba ote?



andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailerak: Maddi Trutbuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietak).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALJATUAK:** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA **Urnietak udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

Euzko Legebiltzaria **Gipuzkoako Foru Aldundia**

ZIURTAGIRIA: **BABESLEAK:** **AIURRI**

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Babestu beharreko ondaretzat har daiteke Axeri-dantza"

IZASKUN BERAZA AXERI DANTZAREN KAPITAINA

Xabier Lasa ANDOAIN
"Dantza, festa eta kultur ondarea" izeneko jardunaldiak egin zituzten Beasainen, urrian. Axeri Dantzako kapitaina den Izaskun Berazak mahai inguruetako batean parte hartu zuen bertan. **Zer jorratu zenuten jardunaldi haietan?**
Gaian murgiltzeko lagungarri diren hainbat galderen inguruan jardun genuen: Gure herriko dantza ondare izendatu daiteke? Zer da ondare izendatzea? Ondare izendapen batek nola lagundu dezake tradizioa iraunarazten? Axeri Dantzaren Elkarteko kide naizen aldetik, azken urteetako esperientzia kontatzeko gonbidatu ninduten. Baina batik bat, entzutera eta ikastera joan nintzen. Izan ere, oso gai interesgarriaren aurrean gaude, ondare inmaterialtzat har daitezkeen geure kulturako hainbat adierazpide maite ditugunontzat.



Izaskun Beraza, Beasaingo jardunaldietan. AXERI DANTZA


Zer kontatu zenuen bertan?
Historia hurbila azaldu nuen; 36ko gerra inguruan galdua zen tradizioa nola berreskuratu zuten, noren transmisioari esker eta nork bultzatuta izan zen hori, azken bi hamarkadetan egin den hausnarketa prozesua eta bizi izan duen eboluzioa... Egun, ekainaren 24an

Goikoplazan plazaratzen den tradizio horrek Andoaingo gizarteari ekartzen dizkion baloreak azpimarratu nituen; besteak beste, euskara eta euskal kultura indartzen duen elementu bat sustatzea, geure historian errotutako euskal tradizio bat biziberritzea, eta, kohesiorako tresna bizi eta parte hartzailea izatea.

Galdera ugari sortu ziren jardunaldietan...
Hala da, eta bata bestearen atzetik irakurritz gero arlo teoriko batean gera gaitezkeela irudituko zaio baten bati beharbada, eta horrexegatik, zer hobe zenbait adibide praktiko begi bistan jartzea baino. Horien artean Galiziako Viana do Bolo herriko inauterietako pertsonaiarena: Italiako Dolce & Gabbana diseinu etxeak pertsonaiaren jantziak inspirazio iturri erabili ditu inori baimenik eskatu gabe, antzeko jantziak diseinatzeke. Adibide hori nahikoa da zer pentsatua eragiteko... **Eta errealitate horren aurrean, zerbait egin liteke?**
Sakon hausnartzeko kontua da. Andoaian Axeri dantza bultzatzen duen taldeko kideoi iruditzen zaigu dantza horrek eta bere inguruko elementu guztiek (historikoa, tradizionala, soziala, kulturala, sinbolikoa...) betetzen dituztela babestu beharreko ondare kulturaltzat izendatzeko irizpideak.
Baina, bestalde, ondo aztertu beharrekoak dira eskaera egitearen aldeko eta kontrako arrazoiak. Zeregin horri ekingo diogu etorkizunean.

HAU ERE BADUGU!


Euskarari jarritako bertsoa



Julen, Eneko eta Gerau.

Punttuka bertsolari eskolako ikasle diren Julen, Eneko, Gerau, Iñaki eta Beñat gazteek bertsoa osatu zuten, euskararen egunarekin bat eginez. Honakoa: *Euskarak dauka arazoren bat ta horretaz ari gara. Zergatik ez deu asko hitzeiten zaharra ta polita bada? Gazte artean etengabea entzuten degu erdara gogorik gabe ez da zer lortu aldatzeko garaia da erdaraz mintza zaren bezala erabil zazu euskara.*

Hamarreko handian eginiko bertsoa.
Doinua: Itsasoari begira.



Iñaki eta Beñat.

Greba deialdia bertan behera geratu zen



Aiurrik langileen eskaeraren jarraipena egin du webgunean.

GORA ETA BEHERA



Oihartzun zabala izan du Xabier Mujikaren albisteak

Joan zen astekariko azken orrialdeko protagonista Andoaian zenbat maite duten oso argi geratu da, Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan herritarrek dozenaka mezu idatzi baitituzte. Abenduaren 4an "Xabier asko dago herrian, baina bada bat bereziki maitagarria dena:

Xabier Mujika" esaldi horrekin batera, astekariko albistea eta argazkia eskegi ziren aipatu sareetan. Erantzuna berehalakoa izan zen. Mezu askoren artean, bi. Irati De La Revillarena: "Faltan botatzen dugu zure txilipitua eta irratia... muxu handi bat!

Joseba Jauregik, bere aldetik, honakoa adierazi zuen: "Omenaldi bat merezi dek. Beti pakean eta denekin lagun. Umoretsu jarrai".

Bisitaldia

Askoren galderari erantzunez, San Juan bataiatzailea egoitzara bisitan joateko aukera dago. Ordutegia: 10:00-12:00 / 16:30-19:00.





Jesus Mari Otamendi eta Felix Martinez de Lezea Olagain taldeko historia bizia dira. AIURRI

Ibilbide oparoari amaiera

Olagain txistularien elkarteak bere 40. urteurrena ospatzeko abenduaren 1ean egin zuen emanaldia azkena izan zen Felix Martinez de Lezea atabalariarentzat eta Jesus Mari Otamendi txistulariarentzat

Xabier Lasa ANDOAIN

Erretiroa hartu dute, beren bizitzaren zati handia atabala eta txistu hotsak zabaltzen jardun eta gero. Hamarkadetan taldeki- de izan dituztenek, esker onez, txapelak eskaini zizkien igandeko kontzertuan, eta Bastero lepo jarri zuten ikusleen txalo zaparrada jaso zuten. “Oso detaile polita izan zen, hunkigarria, eta eskertuta gaude bihotzez. Ezustean hartu genuen txapelarena. Nahiago genuen protagonismoa 1979an Olagain elkarte sortu zutenek bakarrik hartu izan balute, baina hala gertatu dira gauzak, zer egingo diogu”. Biek poza agertu dute ikusita kontzertua nola irten zen: “Ederra izan zen, gonbidatu mordoa, gustu guztietarako musika eskaintza, publikoaren erantzuna bikaina... Olagainez ezin zezakeen egokia- go ospatu 40. urtebetetzea”.

Erretiroen zergatia

Erretiroaren arrazoirengatik galdetuz gero, Jose Luis Etxeberria adiskideak txistua lagatzeko orduan 2008an ironia finez aipatu zuen arrazoi berberari heltzen dioten biek ere: “75 urterekin jubilatzen omen dira obispoak...”. Badute bigarren arrazoia, zentzuzkoagoa eta praktikoagoa, giza fakultateekin zerikusia duena. Izan ere, 40ko hamarkadaren hasieran jaiotakoak dira biak, eta urteek ez dute barkatzen... Txistuarekiko atxikimendu sentimentalak txistularien bandan jarraitzea eskatzen zien, baina

"TXAPELA JASOTZEA OSO DETAILA POLITA IZAN ZEN, HUNKIGARRIA. ESKERTUTA GAUDE"

buruak uzteko agindu die. “Besoez eta hatzek ez dute zeukaten azkartasuna, eta zenbait pieza interpretatzerakoan kostatzen zizaien behar zen erritmoari jarraitzea”.

Otamendik aitortu duenez, zenbaitetan, lau nota jo beharrean hiru jotzera mugatzen zen; “taldearen babesean aritzeak eta martingalak ikasita edukitzeak gabezia hori estaltzen lagundu izan dit”. Zailagoa zeukan Martinez de Lezeak, atabala baita txistulari taldeari erritmoa ezartzen dion musika tresna. Nahiz eta musika tresna hori izan bazter samar geratu ohi dena normalki, txistuak protagonismoa guztia hartzen baitu. Alde horretatik, Otamendik atabalaren eta atabalarien ezinbesteko funtzioa aldarrikatu nahi izan du: “ezinbesteko bidelagunak dira txistularientzat, eurek mar-

katzen diete zenbateko abiaduran joan behar duten. Rock talde bateko bateria bezala, harenik gabe nekez dago musikarik”.

Olagainen hasierak

Martinez de Lezea eta Otamendi Olagain txistularien Elkarteko kideak izan dira hasieratik, 40 urtez. Ordurako, ordea, urte batzuk eginak zeuzkaten musikari gisa. Felix Martinez de Lezeari etxean bertan txertatu zitzaion zaletasuna. “Ni Tolosakoa naiz, eta han txistuak beti eduki du predikamentu handia; oraindik ere igande goizero kontzertuak eskaintzeko ohiturari eusten diote. Txistulari bandako kideak ziren gure aitona eta aita, eta zazpi seme-alabetatik lau mutilek bide beretik jo genuen. Ni txistuarekin hasi nintzen arren, gehiago gustatu atabala! Andoainera etorri nintzen bizitzera gero, eta etxean semeak ere txistua ikasi zuen, beharko ikasi!”.

Frankismoko urteetan Eugenio Arregi apaizak gidatuta funtzionatzen zuen Juventud Obrera Catolica elkartearen gerizpean hezitakoa da Otamendi. “Bertan gau eskolan eta abesbatzan parte hartzen nuen, besteak beste. Behin Arregik Joxe Antonio Zalakain eta biok txistua jotzera tentatu gintuen; halaxe hasi ginen Joxe Mari Huizi irakasle gurea. Geroxeago, Donostiako kontserbatorioan segi genuen ikasketekin, Felixen aitonaaren anaiarekin eta Jose Inazio Ansorenarekin. 60 eta 70eko urtetan Andoainen ez zen txistulari talde finkorik, eta udalak, festetarako eta protokolozko ekitaldietarako txistuaren beharra zuten, Joxe Luis Etxeberria eta Joxe Maria eta Pio Huizi anaiak otsegiten ziren, eta tarteka, Joxe Antonio eta biok taldera erantsen ginen. Gainontzean, Joxe Antonio eta biok, Iñaki Arinekin batera, Lizar Makil dantza taldearekin aritzen ginen”.

Musikari izateaz gain, biak ere badakite zer den txistuaren transmisioan parte hartzea, musika irakasle izan baitziren Aita

"KONPROMISOA EZINBESTEKOA DA. BAITA FAMILIA OSO ESKUZABALEKOA EDUKITZEA ERE"

Larramendi ikastolan, Jose Luis Etxeberria eta Joxe Mari Huizi lagun zituztela zeregin horretan.

Talde iraunkorraren garrantzia

Andoainen txistulariak gutxienez XVIII. mendeaz geroztik izan direla adierazten digute agiri idatziek. XX. mendeari dagokionez, behintzat, gora beheratsua izan da haien presentzia; ziu- rrenik, Olagain elkartearen sortzeak ekarri dio txistuari finkotasuna, artean ez zeukana. Martinez de Lezeak gogoratu du, labur, nola eratu zen Olagain elkarte. “1978ko Eguberrietan, Joxe Luis Etxeberria, Jose Mari Huizi, Joxe Goikoetxea eta lauk kalejiran irten ginen, lehen txistua, bigarren txistua, silbotea eta atabaleko laukotea osatuz. Ea zer gertatzen zen, ea andoaindarrek nola erantzuten zuten, bageneukan ikusmina! Kontua da hurrengo urtean sortu zela formalki Andoingo Txistularien Taldea, modu iraunkor batean funtzionatzeko asmoz. Behar bati erantzuten zitzaizola pentsatzen zen, eta asmatu egin zen”.

Geroztik, ehunka kontzertu, kalejira, protokolozko ekitaldi eta abarretan hartu dute parte Jesus Marik eta Felixek, 40 urte luzeetan. Era guztietako emanaldiak egitera ohitu dira. Madrileraino iritsi ziren behin, Pablo Sorozabal musikari ospe- tsuaren omenezko emanaldi bat eskaini zutenean Ramon Berazak zuzentzen zuen Easo abesbatza lagun zutela.

Musikari itsatsitako ibilbide luzeak merezi izan duela diote, satisfazio pertsonalez betetakoa izan delako; halaxe diote, zalan- tza izpirik agertu gabe. Nolanahi ere, dena ez da arrosa kolorekoa. “Sakrifikatua da banda bateko kide izatea, asteroko entseguen eta emanaldiekin ezin duzuelako hutsik egin, eta esker txarre- koa delako maiz. Horretarako, ezinbestekoa da konpromisoa hartzea, eta gainera, baita fami- lia oso esku zabalekoa edukitzea ere. Bandako zuzendari izan genuen Javier Hernandezek beti esaten zuen lehentasunak mar- katu behar izaten direla bizitza honetan, eta txistua hautatzen duenak badakiela zer datorkion”.

Kili-kolo etorkizuna

Konpromisoaren balorearekin lotu dute txistuaren eta ataba- laren etorkizuna Otamendik zein Martinez de Lezeak. “Ola-



Otamendi txistularia eta Martinez de Lezea atabalaria, azken kontzertuaren ostean.

gain Txistulari Elkartek osasun ona dauka egun, baina bere kideak aspaldian dabiltzanak dira. Beste hogeit bat urtetan segiko du txistuak Andoainen, baino ondoren, nork daki... Iruditzen zaigu datozen belaunaldiak beste modu batera ulertzen dutela konpromezua”.

Txistuaren eta atabalaren transmisioarekiko ikuspegi ezkor samar horrekin lotuta, badaukate zer kritikatu Andoainen musikaren arloan hamarkadetan gertatzen ari den egoerarekin. “Ez dugu ulertzen zer dela eta txistua eta atabala ez diren Udal Musika Eskolan irakasten, ezta Euskal Herrian errotutako beste hainbat musika tresna (alboka, trikitixa, txalaparta...). Txistulari elkarteko kide den Fernando Gonzalez sei bat gaztetxoekin ahalegintzen ari da, eta nahikoa egiten du. Baina Udalak hartu behar luke euskal instrumentuekiko konpromisoa bere gain”.

Txistuarenganako kultura galtzen ari dela uste dute, Euskal Herrian zein Andoainen. Hala dio Otamendik: “Auskalo

nondik datozen modek agintzen dute, eta errealitate horren baitan, txistua bigarren mailako instrumentutzat hartzen da, ez da behar bezala zabaltzen; iraganeko kontuak dira txistulari bat danbolinarekin nahikoa zela erromeria giroa srtzeko eta jendea plazan dantzan jartzeko. Esate batera, orain urte asko ez dela txistuaren munduan goren mailakoa den Bilboko Banda Basterora hurbildu zenean, dozena bat lagun baizik ez ziren bertaratu. Beste musika instrumentuekin kontzertuak elkarlanean eskaintzearen bidetik ekin zaio azken aldian, publiko zabalarentzat txistua erakargarriagoa egiteko asmoz, eta gurean Jose Mari Setien zuzendaria asmatzen ari da. Baina arriskua egon liteke, txistuaren esentzia galtzen joatea”.

"TXISTUA ETA ATABALA UDAL MUSIKA ESKOLAN EZ IRAKASTEA ULERGAITZA ZAIGU"

Andoaingo historian sakontzeko ikerketak

Estibaliz Gonzalez, Iosu Etxezarraga eta Maria Senderosen lan bana argitaratu du Andoaingo Udalak, Leyçaur aldizkariaren 15. zenbakian. Moises eta Truchuelo anaien argazki-bildumen CDA txertatu dute liburuan, osagarri modura

Xabier Lasa ANDOAIN

Sorabilla auzoko historia (XVI-XX) ikertu du Estibaliz Gonzalezek “Historia de Sorabilla” izenburuko idazlanean. Aiztondoko Alkatetza Nagusiarekin lotuta agertzen denetik aurrera, hainbat gai jorratu ditu Gonzalezek: Azelaingo leinuaren presentzia, beste etxe batzuek eta haien jabeek osatutako herriko kontsejua, ondasun amankomunen kudeaketa, udalerri izandako garaia (1943-1982), Andoainera batzeko prozesua...

Iosu Etxezarragak idatzi du bigarren ikerketa lana, “Komunitatea, gizarte-harremanak eta mentalitateak Andoainen Berpizkundearen garaian” izenekoa. 1568an Diego Leizaur apaizaren aurka egin zen epaia du aztergai Etxezarragak; sexu-abusu saia-kera homosexualen, haragizko sexu-harreman heterosexualen eta presbitero-ordenaren kontrako jarreraren akusaziotik libre geratu zen apaiza. Sententziaren gaintetik, epai horretan zehar esan eta idatzi zirenak hizpide ditu egileak. Berpizkundeko andoaindarren mundua hobe ulertzen laguntzen digutelakoan, haien jarrera, pentsamendu eta mentalitatearen inguruan.

“Industria paisaia lineal baten adibidea: Ama Kandida Etorbi-



Gonzalez, Otaegi, Lainez, Senderos eta Etxezarraga aurkezpen ekitaldian. AIURRI

dea” izenburuko ikerketan, Maria Senderosek XX. mendean Gipuzkoako komunikabide sareen ondoan sortu zen industria-ondare paisaia linealaren adibidetzat jotzen du Ama Kandida etorbidea. Eta zehazki bertan kokatu zen arkitektura multzoa.

Hiru ikerketaz gain, Leyçaur 15. zenbakiak Andoaingo argazkigintzari buruzko eranskina dakar. Andoaingo lehengo argazkilariak gogoan hartu eta Moises San Joserekin eta Truchuelo anaiekin osatu ziren argazki erakusketa banan jarri-

tako irudiak (1.400tik gora) CD batean bildu dituzte.

Karmele Otaegi Udal Artxiboko arduradunak adierazi zuenez, Leyçaur 15 osatzeko hiru historialariei enkarguzko lanak eskatu zaizkie. Hurrengo alerako, ordea, berriro deialdi irekia egingo da, “ea historiagileak, eta bereziki herriko historiagileak, ikertzerantz animatzen diren”.

Leyçaur 15 aldizkaria 15 eurotan jarri da salgai, honako lekuetan: Bastero, Ataria, eta Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendak.

Maila bikaina Arrasaten

Joan zen larunbatean, Soinuak musika eskolako Mikel Etxegia, Garazi Ezama eta Koldo Gonzalez ikasleek Arrasateko akordeoi jaialdian parte hartu zuten. Urrezko domina eskuratu zuten, taldeka. Mikel Etxegiak, bestalde, zilarrezko domina lortu zuen bakarkako saioan. Datorren abenduaren 20ean Soinuak musika eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute Basteron.



SOINUAK

**JAVIER DAVILA** URTARRILA

Kolore eta lerroekin jolasean: "Etxeberrieta auzunean azken aldian eraiki duten etxebizitza eraikin berri horietako bat irudikatu dut. Argi eta ilunekin eta etxearen lerro zuzenekin jokatu nahi izan nuen, egun eguzkitsu batean".

**JOSE ANGEL AMUCHASTEGUI** OTSAILA


Bastero: "Zoragarria da Basteroko eraikuntza, oso fotogenikoa iruditu izan zait beti, eta barrualdeari irudiak ateratzeko gogoa piztu zitzaidan. Hamar bat argazki atera nituen, Basteroko zenbait txoko jaso nahian".

**XABIER HUITZI** MARTXOA

Eraisketa: "Eraisketa du izenburua argazkiak, hau da, eraikuntzaren kontrakoa. Graffitiak dauzka horma zaharrak, eta era horretan, kolore artifizialak eta naturalak oso modu orekatuan nahasten dira; kuadro baten aurrean gaudela dirudi".

**JOSE ANGEL AMUCHASTEGUI** UZTAILA

Arcos: "Andoaingo kaleetan barrena pasiatuz nindoala ideia sortu zitzaidan. Aurreko fatxadak dauzkan kolore eta marrazkiek piztu zidaten atentzioa. Ilusio optikoa eragiten dute marrek, errealtatea distorsionatzearaino".

**JAVIER DAVILA** ABUZTUA

Izarrerantz atea: "Zenbait gau igaro nituen bertan, tripodea eta kamera jarrita; bi ordutan ehun bat argazki atera nituen, hamabost bat segundo erabiliz bakoitzarekin; azkenik, guztiak pilatu egin nituen Photoshopa erabiliz".

**XABIER ALKORTA** IRAILA

Bastero: "Oso kamera arrunta daukan eskuko telefono batekin egin nuen argazkia; kontua da egunaren argitasunarekin suerte handia eduki nuela. Une egokiaren zain izan nintzen, klik! egiteko".

2020ko egutegiko irudiak

2020ko udal egutegia eta bere baitan bildutako hamabi argazkiak aurkeztu zituzten Andoaingo Udal Artxiboan, joan zen asteazkenean antolatu zuten ekitaldian. Andoaingo arkitektura izan da aurtengo gaia

Xabier Lasa ANDOAIN

Ehun eta hirurogei argazki aurkeztu dituzte Udalaren urteko egutegia ilustratzeko hirugarren ediziora, eta epaimahaiak hamar

egileren hamabi argazki hautatu ditu. Epaimahaia, aurtengoan, honakoek osatu dute: Txitxu Ruiz eta Teresa Santana zinegotziak, Karmele Otaegi artxi-

boko zuzendaria eta Eduardo Uranga eta Itsaso Mendiluze argazki adituak. Sari banaketa ekitaldian saritu bakoitzak azalpenak emateko aukera izan zuen.

Javier Davila, urtarrila:

"Etxeberrieta auzunean azken aldian eraiki dituzten etxebizitza eraikin berri horietako bat erretratatu dut. Argi eta ilunekin eta etxearen lerro zuzenekin jokatu nahi izan nuen, egun eguzkitsu batean.

Jose Angel Amuchastegui, otsaila:

"Zoragarria da Basteroko eraikuntza, oso fotogenikoa iruditu izan zait beti, eta barrualdeari irudiak ateratzeko gogoa piztu zitzaidan. Hamar bat argazki atera nituen, Basteroko zenbait txoko jaso nahian.

Xabier Huitzi, martxoa:

"Andoainen badago paisaje ur-banoa, zaharkitua, arreta eragin didana betidanik, paisaje industrialak batez ere. Egutegian, Ola-

mia zaharreko inguruko horma bat ageri da. Urtaro desberdinetan atera izan diet argazkia inguruko horma horiei, bi urtetan segidan".

Alain Patino, apirila:

"Esposizio luzeko argazkiak ateratzea zen nire asmoa, 20 bat segundotan eginkizun horretara jarrita. Zeta efektua itsatsi nahi nion urari, eta uste dut lortu nuela".

Margarita Oyarzun, maiatza:

"Egia esan, Martin Ugalde kultur parkean kontserbatzen den lantegiko eraikuntza guztiak merezita dauka zaintza berezirik izendapena. Urte mordo leku horretara joan gabe pasa eta gero, aurtun izan dut eskailera horiek berriro igotzeko

**ALAIN PATINO** APIRILA

Presa Olaberri: "Olaberriko presa ageri da irudian, Leitzaran bailaran. Enfoke berezia eman nahi nion, eta horrexegatik argazkia ateratzeko erreken erdian jarri nintzen, harriz harri ibili eta gero".

**MARGARITA OYARZUN** MAIATZA

Laborde: "Gaztetan Labordeko lantegiko langilea izan nintzen, eta makina bat alditan igo eta jaitsi behar izan nituen eskailera berezi-berezi horiek. Martin Ugalde kultur parkea da egun, zaintza bereziko izendapena duen eraikina".

**ITZIAR GUTIERREZ** EKAINA

Argi sarrerak: "Esan izan didate nire argazki eta karteletan maiz heltzen diodala Andoaingo San Martin elizari, eta egia da. Izan ere, kanpandorra, erlojuak, harria... elementu ugari dauzka estetikoki erakargarri egiten dutenak".

**CARLOS SANCHEZ** URRIA

Movimiento en pausa: "Perspektiban sakondu nahi izan nuen, eta halaber, naturaren elementuek (zuhaitzek, belarrak...) eta eskaileretako pinturak, denek elkarrekin eskaintzen zuten kolore biziak jokatu nahi izan nuen".

**AITOR ALKAIN** AZAROA

Apaizaren begietan: "Andoainen jendeak gutxi ezagutzen dituen bazterrak aldarrikatu nahi nituzke. Polita da ermita barrutik, eta seguru herrian asko direla sekula sartu ez direnak".

**GEMA CONDE** ABENDUA

Negu txuriak: "Eraikinaren arkitekturak erakartzen nau, eta baita atze-atzean dauzkan Belkoain mendia eta Olagain auzoko hiru etxe-dorreak; urtaroko zenbait hila-beteetan, badirudi hiru dorreak oihan ilun batetik zutitzen direla".

aukera, eta noski, argazkiak atera nizkion!".

Itziar Gutierrez, ekaina:

"San Martin elizako arkupe batek argi jolas polita eskaintzen digu, erakargarria da argiaren textura, nola nabarmentzen den harrien kalitatea... Konposaketa aldetik oso polita egin zitzaidan eguneko une hori, argi eta ilun horiekin. Historikoki, erlijiozko espazioetan argiaren presentziak sinbolismoa handia eduki izan du".

ABENDUAREN 16TIK AURRERA EGUTEGIA HERRITARREN ESKURA EGONGO DA, ATARIA ZERBITZUAN

Jose Angel Amuchastegui, uztaila:

Uztaileko etxe gorriari dagokionez, ideia Andoaingo kaleetan barrena pasiatuz nindoala sortu zitzaidan. Ilusio optikoa eragiten dute marrek, errealitatea distorsionatzeraino".

Javier Davila, abuztua:

Abuztuko orrian, berriz, Espigoaren ingurunea oinarri hartuta, iparrizarrari eman diot protagonismoa. Iparrizarraren arabera lurra egiten duen bira islatzen da argazkian, hain zuzen".

Xabier Alkorta, iraila:

"Bastero paretik egunero pasatzen naiz haurrak ikastetxera eramateko, eta argi polita zegoela ikusi nuen egun batean sakeleko telefona poltsikotik

atera, pertsona bat pasatzeko zain geratu, eta une hori iritsi zenean kilik! egin nuen".

Carlos Sanchez, urria:

"Doktor Huizi kaleko eskailera mekanikoak martxan ziren egun hartan, baina nire kamerak geldirik erretratatu zituen; halaxe baitzegoen, herritarren esperoan.

Aitor Alkain, azaroa:

"Goiburu auzoko San Esteban ermitaren barrukaldea erretratatu dut, nire asmoei jarraituz.

HERRITAR BAKOITZAK GEHIENEZ ERE BI EGUTEGI ESKURATU AHAL IZANGO DITU

Ermita barruan, apaizaren ikuspegia irudikatu nahi izan dut: alegia, herritarrak aldareari begira egoten garen bitartean, apaizak zer ikusten ote duen. Gainera, argazkiak halako mezua zabaldu nahi du: elizak gero eta hustuagoak daudela, eta bere goi-agintariei neurriak hartu beharko dituztela herritarrak erakarri nahi badituzte. Eskerrak eman nizkioke seroraren lanak betetzen dituen Mari Karmen Txapartegiri elizako ateak ireki eta argazkiak ateratzeko erraztasun guztiak jarri zizkidalako".

Gema Conde, abendua:

"Astero ibili ohi naiz Leitzaranen barrena, eta izugarri dut gogoko paper lantoki zaharraren irudi hori. Urtaroko garai guztietan edukitzen dut begien au-

rrean, eta erretinan ondo gordeta daukat. Bere arkitekturak erakartzen nau, eta baita ere, erakartzen nau atze-atzean nola dauzkan zutik Belkoain mendia eta Olagain auzoko hiru etxe-dorreak; urtaroko zenbait hila-beteetan, badirudi hiru dorreak oihan ilun batetik zutitzen direla".

Saridunen berri eman eta gero, abenduaren 16tik aurrera herritarrek Udal egutegia jasotzeko aukera izango dute. Azkar batean agortu ohi dira.

EKITALDIAN 2021 ERAKO GAIA ZEIN IZANGO DEN IRAGARRI ZUTEN: ANDOAINGO KOLOREAK



Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt dantzari eta koreografoen esanetara lanean ari dira, aste osoan zehar, kiroldegiko instalakuntzatan. AIURRI

Jon Ander Ubeda URNIETA

“Pertsonak elkarrekin dantzatzeko gai badira, elkarrekin bizitzeko gai ere badira”, horixe da egitasmo pedagogiko honen oinarrian dagoen esaldia. Dantzak gazteengan eragin positiboa duelakoan, Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt dantzari eta koreografoek sustaturiko “5 Days to dance” egitasmoak ikasleen garapen pertsonala eta soziala aberastu nahi du. Ikasleek aste honetan ikasketak alde batera utzi dituzte, dantzan burubelarri murgiltzeko. Ostiral honetan, Saroberen urteurreneko ekitaldien artean, aste osoan zehar landutakoa jendaurrean eskainiko dute. Ikuskizunak “Etxean, bai goxo etxean” du izena eta erre-fuxiatuei, etorkinei eta muturreko arrazoiengatik alde egin

Elkarbizitza dantzaren bidez

Egape ikastolako eta Magale ikastetxeko DBH 3.mailako ikasleek aste osoa daramate “Etxean, bai goxo etxean” ikuskizuna prestatzen. Serio ari dira lanean, Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt dantzari eta koreografoaren esanetara lanean

eta euren etxetik urrun etxebizitza berria eraiki behar duten pertsonaei eskainita dago. Sustatzaileek horrela adierazi dute: “Seguru eta maitatuta bizitzeko etxe baten parte izatearen sen-

timenduari dei egiten diogu, ingurune errespetatu eta partekatu batean, familian zein gizartean. Koreografia honekin *nahikoa da!* esan nahi dugu. Errespetuaren, maitasunaren,

harmoniaren eta bizitzearen alaitasunaren alde borrokatu nahi dugu”.

**Abenduak 13, ostirala.
19:30, Sarobe.**

Kontzertua larunbat gauean

Saroberen urteurrenean, kontzertu ezberdinen bitartez, musikagintzan bidea egiten ari diren proposamen berriak ikusteko aukera izango da. Foru Aldundiaren egitasmoarekin bat eginez, Urnieta *KatapultaTour Gipuzkoa* zirkuituaren guneeetakoa bilakatu da. Larunbat honetan bi talde berri zuzenean ikusteko aukera izango da.

Tenpera

Donostiako 18-20 urte bitarteko hiru gaztek osatzen dute. Rock alternatibotzat defini daiteke euren musika, noise-rock edota punk estiloak uztartuz. Bi EP edo disko txiki argitaratu dituzte, 2017tik hona.

Ro

Azkoitian sortu zen taldea. Ia urtebetez lokalean lanean egon ostean, lau abestiko diskoa aurkeztu zuten. Hainbat kontzertu eskaini dituzte iazko udatik hona. Post rock instrumental estiloko kantuak egiten dituzte.

**Abenduak 14, larunbata.
22:00, Sarobe.
Doan.**

Igandean itxiko ditu ateak Sarobeko erakusketa bereziak

Ostegunean eta ostiralean, goizez eta arratsalde zabalik izango da. Eta igandean, 17:00tik aurrera

Jon Ander Ubeda URNIETA

Gustu eta mimo handiz prestatutako erakusketa da, hainbat antzezlanetan erabilitako atrezzoak ikusi eta ukitu daitekeelako. Baita jantzi eta elementu apain-

garri ugari ere. Sarobera sartu eta berehala, ikusleak erakusketara jarraitzeko gida parez pare aurkituko du. Hiriburu eta metroa irudikatuz, kolore ezberdinekin definitutako ibilbideak

aurki daitezke. Koloredun marra bakoitzak toki ezberdinera garatzen du. Hauexek, aukeran: Sarobeko historia, herri ikuskizuna, atrezzoak, jantzigintza, zinema, dantza, musika... lurrean ipinitako koloredun markak jarraituta, batera edo bestera iritsiko gara. Saroben egon ez denarentzat guztiz gomendarrak da erakusketara bisitaldia egitea. Eta dagoeneko bertan izan den ikuslearentzat, laster kenduko duten erakusketa azken aldiz ikusteko aukera paregabea.



Florida Pensil antzezlanean erabilitako atrezzoak ikusgai dago Saroben. AIURRI

Garaño, Arregi eta Goenagaren parte hartzea Saroben

Igandean "La trinchera infinita" filma eskainiko dute. Hirurak Urnietako zinema eskolako ikasle ohiak dira

Erredakzioa URNIETA

Sarobeko egitaraua borobiltzeko, igande honetan "La trinchera infinita" film ezagunaren zuzendariak Urnietara hurbilduko dira. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da emanaldia, eta sarrera leihatilan bertan edo internet bidez erosi ahal izango da.

Igandeko saioaren eta urteurrenaren harira, Jon Garañok Urnietako ikasle garaiki gogoan hartu zituen Euskadi Irratiko *Amarauna* saioan. Alba Cabrera urnietarrak egindako erreportajea zera adierazi zuen: "Esan daiteke Saroben hasi zela dena. Bertan elkar ezagutu genuen Moriartiko bazkide guztiak. Urte zoragarriak pasa genituen Saroben, ikasketak bukatu eta produktora sortzea erabaki genuen".

Oroitzapen bikainak gordetzen ditu, zinema baitzen hizpide nagusia: "Zinemaz hitz egiten genuen etengabe. Klaseak ematen profesional handiak izan genituen: Michel Gaztambide, Enrique Urbizu... pribilegio moduko bat bezala sentitzen dut".

Urteak igarota, ikasle haiek maila handiko profesionalak bilakatu dira. Baina fama handia lortuta ere, sustraiak ahazten ez dituzten pertsonak dira. Garañoren ahotan nabari da filma Saroben aurkeztea berezia izango dela: "Ederra da. Atzera



Jon Garaño. HUHEZINEMA

begira jarri eta pentsa non ginen orain dela hemeretzi urte. Ilusio guztiarekin bizi ginen, laburmetraiak prestatzen eta noizbait zuzendari izango zarela imajinatzen. Zinema zuzendari, edo argazki zuzendari, ekoizle... Hori bete egin da. Filmak egiteko aukera daukagu eta pelikula horietako bat Saroben eskaintzea oso ederra iruditzen zait. Saroben ikasle izandako jende asko film honetan inplikaturik egon da efektu berezietan, soinu hartzaile gisa, gidoigintzan eta ekoizpenean... Gu bezain harro eta pozik sentituko dira".

**Abenduak 15, igandea.
18:00, Sarobe.
4 euro.**

ZINEMA

La trinchera infinita

Zuzendariak: Jon Garaño, Aitor Arregi, Jose Mari Goenaga. **Gidoia:** Luiso Berdejo, Jose Mari Goenaga. **Aktoreak:** Antonio de la Torre, Belen Cuesta, Vicente Vergara, Jose Manuel Poga, Emilio Palacios... **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 147 min. **Ordua:** 18:00. **Prezioa:** 4 euro.

Igande arratsaldean, Saroben

Urteko filma izaten ari da, ikuslegoaren eta kritikaren saria jasotzen ari baita. Loreak eta Handia filmak egin ostean, zuzendariak ekoizpen berriari heldu diote. Gaztelaniaz egindako filma 36ko gertaera

batean oinarritzen da. Higinio eta Rosa ezkondu berri dira, gerra piztu denean. Senarrak arazo handi samarrak izango ditu, eta ezkutaleku modura etxean bertan egindako zulo bat baliatuko dute.



IRITZIA

JON UNANUE URNIETA

Berriro ere...

Azaroaren hondarretan eskaini zuten aurreneko eta, dirudienez, azkeneko, 'Soinuen Begiradak' izeneko ikuskizuna Urnietako Saroben. Egape dantza taldea eta Anabasa musika taldea izan ditu bizkarrezur ikuskizun horrek, eta beste hainbat urnietarrek bere aletxoak ekarri dute, dela argazkiak eta irudiak prestatzen, dela musikari edo kantari gisa partaidetza eskaintzen, dela eskoizpenean eta logistikan laguntza eskaintzen... Niri ere egokitu zait testu batzuk prestatzea eta zuzenean jarraitu ahal izan ditut, neurri batean behinik behin, ikuskizuna osatzeko lanak. Azken urteetan Urnietan landu eta osatu diren ikuskizunetako azkena izan da azaroan mustutakoa eta, aurreko guztiak bezalaxe, bikaina benetan.

Bikaina diodanean, aitzakiarik gabe diot bikaina: bikaina dantza emanaldietako koreografiak eta dantzarien burutzapena, bikaina musika –guztia Urnietan sortua ikuskizun hauetarako–, bikaina ikuskizun guztia josteko eta ekoizteko egin den lana... Talde lana, finean, bikaina izan da eta hori beti da gozagarria. Lagun jakin batzuek ikuskizun berri honetan bere arrasto nabarmena utzi dute, aurreko ikuskizun guztietan –*Marizulo, Urnieta 1959, 1936, Zuria*– utzi zuten bezalaxe: Edu Muruamendiaren mailako koreografoa eta dantzaria tartean izatea luxua da Urnietarentzat, eta maila berean dira aipagarri Antton Jauregi musikaria eta Mikel Agirregomezkorta eszenografoa. Ezkutuan gelditzen diren egileen artean bi, berezibiziko garrantzia eta merezimendua dutenak: Jaione Jauregi –bera dugu ekoizle lan ugari egiten duena– eta Pablo Lusarreta, atzean hari gehienak



'Soinuen Begiradak' ikuskizuna azaroaren 30ean eskaini zuten. AIURRI

mugitzen dituen eskarmentu handiko teknikaria.

Eta emaitza, egun askotako, ordu askotako lana, aurrena nork bere aldetik egindakoa eta, azken hilabeteetan, elkarrekin ondurikoa Sarobeko aretoan. Emaitza, egunsentitik arratserainoko ibilbidea eginez Urnieta herriaren izateari begiratu ematen dion dantza eta musika ikuskizuna, Adarramendiko Etenetatik hasi eta Muniskue eta Goiburun behera plaza eta herrigunera ailegatzen dena, ondoren, kalekoak eginda, Berrasoetan gora Buruntzako ilunabarrean amaitzeko. Foklore, historia, olerki eta antropologia ukituak dituen musika eta dantza ikuskizuna, ordu beteko gozagarria urnietarrentzat eta Urnieta kanpokoentzat ere.

Inork ez dezala pentsa gisa honetako ikuskizunak herri guztietan osatu eta antolatzen direnik; ezta gutxiagorik ere. Urte hauetan guztietan Urnietak izan duen kultura ondasunik biziena, berezkoena, jatorrena, Saroberen altzoan sortu den musika, dantza eta antzerki mugimendu horixe izan da, Euskal Herri osoan oso herri gutxi, oso gutxi aurkez dezaketena. Zoritzarrez, nire irudiko Urnietak ez du jakin, ez du asmatu, ondasun hori behar bezala ezagutzera ematen. Ordu askotako,

hilabeteetako lana, lan bikaina, egun bateko ala biko hiruzpalau saiotan agertzen da... eta kitto! "Soinuen begiradak" azken ikuskizun honek, esaten baterako, hiru emanaldi izan zituen azaroaren 30ean, Urnietan bertan, eta hortik aurrera amaitu da, nik dakidala ez da gehiago ikusiko. Azken ikuskizun hau oso Urnietakoa izan arren lasai asko eraman liteke beste antzoki eta areto batzuetara, aurretik sortu eta ekoiztu zirenak eraman zitezkeen bezalaxe –gehienez ere Andoainera eraman izan dira eta, azkenekoa, Zuria, Donostiako Antzoki Zaharrera–, baina aurretik lan egin behar da ikuskizuna "saltzeko" Euskal Herrian barrena.

Ikuskizunak merkatura aterako dituen ekoizlea da falta dena, zokozorretan ibili gabe, benetako babeslea ondasun hori Urnietatik kanpo eskainiz hazi, lora eta aberas dadin. Zapuzgarria gertatzen baita, bestela, hainbeste ordutako lana bizpahiru emanalditan lurruntzen ikustea, oraindik guztiz bere onena eman ez duenean, eman ahala hazi beharrean denean...

Bien bitartean, babesle horren zain gogoia eta umorea zimurtuko ez zaizuelakoan, zorionak hor parte hartu duzuen guztioi eta, eutsi goiari!



Uxue Ibañez, Irati Zinkunegi eta Alazne Conde Urnieta Quel Abogados eskubaloia taldeko jokalaria. AIURRI

Gorritxoak garaitezinak dira

ESKUBALOIA Zazpi partida irabazi dituzte jarraian eta zortzigarren garaipenaren bila joango dira, asteburu honetan. Eguberrien atarian, berriz, lehen sailkatua den Egiaren aurka arituko dira. Partida garrantzitsua izango da, lidergotza jokoan izango baita

Mikel Arberas URNIETA

Urnieta Quel Abogados emakumezkoen senior mailako taldea denboraldi bikaina egiten ari da. Zazpi partida irabazi dituzte jarraian eta zortzigarrenaren bila joango dira asteburuan Urolaren aurka jokatu duten partidaren. Senior taldea bigarren postuan dago, Egia taldearekin berdinduta.

Uxue Ibañez, Alazne Conde eta Irati Zinkunegi dira denboraldi bikaina egiten ari diren jokalarietakoak. Urteak daramatzate elkarrekin jokatzen. Uxuek eta Alaznek, andoaindarrak izanik, Andoaingo Leizaran taldean jokatun zuten. Taldea osatzeko jende nahikoa ez ze-

goela eta, Urnieta UKE taldera igaro ziren. Irati Zinkunegi, aldiz, taldeko beteranoa da: "Escola kirolean eskubaloia eta futbola egiten da Urnietan. Nik argi nuen eskubaloia nahi nuela, nahiz eta kuadrilako gehienak futboleko jokatuko. Dagoeneko hamaika urte daramatzat gus-tuko dudana kirola egiten".

Talde berritzaletzat jotzen dute Urnieta UKE, baina giro falta ez dagoela adierazi dute hirurek. "Taldetik ez nuen inor ezagutzen, baina oso ondo moldatzen gara, giro oso ona dago. Eskubaloia arlotik kanpo ere giro ona dagoela uste dut, afariak eta bazkariak egiten baititugu. Oso gustura nago", dio Ibañezek.

Urnieta Quel Abogados taldea berria da, pasa den urtean ez baitzuten senior mailako taldea osatzeko lortu. Aurten, ordea, Andoaingo Leizaran izan da taldea osatzeko jokalaria bilatu ez dituen. Gauzak horrela, bost andoaindar joan ziren irailan Urnieta aldera. Alaznek adierazi duenez, "entrenatzaileak urnietarrak eta andoaindarrak nahasten ditu taldean. Horrela, taldea batuago dagoela uste dugu".

Denboraldi bikaina

Zazpi partida irabazi dituzte jarraian, eta estatistika horiekin sailkapenaren gaikaldean daude. Egiarekin buruz buru dira. Mai-

la altua erakusten ari dira eta arrazoiak asko izan daitezke. Hauexek, jokalariek: "Gainontzeko talde gehienak oso gazteak dira, eta 23 urtetik gorako jokalaria taldean edukitzea aberasgarria da. Dena esatera, aurten talde berri asko sortu dira: Eibarrek Tolosakoekin taldea ateratu du, Txingudik ere lehen aldiz osatu du taldea... Jokalaria oso gazteak dira eta, seguruenik, esperientzia gabekoak".

Taldearen lan ona ere azpimarratu dute, "partidak ondo planteatu dira eta norgehiagoka batzuk sufrituta irabazi ditugu. Horrez gain, asko animatzen diogu elkarri eta, horrek, markagailua aldarazteko gaitasuna ematen digu. Entrenatzaileak beti esaten digu partidak borrokatu egiten ditugula".

Hasiberriak izatetik, igogerarekin amatera

Denboraldiaren hasieran Urnieta eskubaloia taldearen aurreikuspenak urriak ziren. Taldea osatzeko hamar kide soilik batu ziren. Andoainen egoera antzerakoa zen, "taldean 7-8 jokalaria soilik geunden. Hala ere, aurre-denboraldia egiten hasi ginen, baina taldea osatzeko ez zela ohartu ginen. Beraz, Andoainen entrenatu beharrean, zuzenean Urnietara joatea erabaki genuen", oroitu du Uxue Ibañez andoaindarrak. Hasieran zituzten aurreikuspenak zeharo aldatu ziren andoaindarrak UKEra batu zirenean, eta orain euren xedea igoera lortzea da.

Esanak esan, denboraldi ezin hobea egiten ari dira. Elkarriketatuek sorpresa gisa hartu dute hasiera, eta andoaindar eta urnietar jokalariek batura oso baikorra izan dela nabarmendu dute: "Onuragarria izan da guz-

tiontzako andoaindarrak UKEra etortzea. Gainera, lehenengo goazenez, dugun motibazioa handia da eta datozen partidei aurre egiteko gehigarri garrantzitsua da", aitortu du Zinkunegik.

Urnieta Quel Abogados senior taldeak asteburuan Urola Fincas Urretxuren aurka jokatu du igandean (12:00). Azken postuan daude, sailkapenari begira. Urnietarrek, beraz, puntuak pilatzeko helburuan aurrera egiten jarraitzeko aukera paregabea ikusten dute: "Ez ditugu aurkariak inoiz gutxietsi behar, azkenekoak diren arren aurkari guztiak bezalaxe irabaz diezagukete eta. Ezin dugu maila jaitsi, orain arte bezala jokatzen jarraitu behar dugu, geure jokoa eginez".

Jokalariek ez dute motibazio faltarik, lehenengo doaz eta igogerarekin amesten hasiak dira, baina gauzak errazak ez direla ere argi dute: "Orain ondo goaz, baina azkenean talde bakarrak lortzen du igoera. Egia taldea ere gurekin batera lehenengo doa, eta gol gehiago sartu dituztenez, *gol average*aren arabera, lehen postuan daude".

"ONDO GOAZ BAINA DENBORALDI AMAIERAN TALDE BAKARRA IGOKO DA"

"ONURAGARRIA IZAN DA GUZTIONTZAT ANDOAINDARRAK TALDEAREN ZATI BILAKATZEA"



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Arretaz gidatzeko deia

TXIRRINDULARITZA

"Entrenatzen hasi eta 500 metrora zurekin doan kidea kotxe gidari batek nola harrapatzen duen ikusi eta gero, ez da hain samurra egiten. Ea arreta gehiagorekin gidatzen dugun errepidean". Horixe izan zen Mikel Iturria txirrindulariak asteartean sare sozial ezberdinetan zabaldu zuen mezua.



ITURRIA

Adarrara gauez

MENDIA

Zanpatuz taldeko kideek irteera antolatu dute, datorren abenduaren 27rako. Besabitik abiatu eta bertan amaituko da, Adarrara igo eta gero. 19:00tan abiatuko dira, eta behar beharrezkoak izango dira linterna eta frontala. Eguraldiaren arabera, neguko arropa eramatea gomendatzen dute.



SONYSTAS

Derbi bikoitza kadete mailan

FUTBOLA

Kadete mailako 7. eta 8. multzoetan Euskaldunako eta Urnietako talde bana lehiatzen ari da. Bi multzoetako bi taldeak elkarren aurka arituko dira, larunbat honetan. Goizeko 09:00tan hasita, 8. multzoko Euskalduna B eta Urnieta B taldeak Ubitarten. Eta 11:30etan, 7. multzoko bi taldeak Urnietako zelaian.



ZATARAIN



KARTELDEGIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
Real Union-Euskalduna	2-1

ASTEBURUKO PARTIDA	
--------------------	--

16:30 Euskalduna- Hernani / Ig, 15

NESKAK, O. ERREGIONALA	
Urnieta-Zarautz	4-1

SAILKAPENA	
1 Arizmendi	34 puntu
10 Urnieta	11 puntu

ERREGIONAL PREFERENTE	
Urnieta-Gure Txokoa	1-2

SAILKAPENA	
1 Vasconia	27 puntu
14 Urnieta	8 puntu

ERREGIONAL 1. MAILA	
SAILKAPENA	
1 Ordizi	20 puntu
7 Euskalduna	14 puntu

PREFERENTE NESKAK	
SAILKAPENA	
1 Euskalduna	25 puntu
2 Añorga	25 puntu

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA	
Euskalduna-Vasconia	4-2

SAILKAPENA	
1 Euskalduna	30 puntu
2 Ekintza	24 puntu

JUBENILEN LEHEN MAILA	
Urnieta-Euskalduna	1-1

ASTEBURUKO PARTIDA	
18:30 Euskalduna- Segura / Ig, 15	

KADETE, 7. MULTZOA	
Euskalduna-Billabona	11-0
Astigarraga-Urnieta	2-1

SAILKAPENA	
1 Euskalduna	33 puntu
4 Urnieta	14 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
11:30 Urnieta-Euskalduna / Lar, 14	

KADETE, 8. MULTZOA	
Urnieta-Orioko	0-6

SAILKAPENA	
1 Santo Tomas Lizeoa	28 puntu
5 Urnieta	15 puntu
6 Euskalduna	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
09:00 Euskalduna-Urnieta / Lar, 14	

ESKUBALOIA	
EUSKADI, SENIOR MUTILAK	
Urnieta-Loyola	27-28

GIPUZKOA, SENIOR EMAKUMEAK	
Urnieta-Txingudi	40-18

SAILKAPENA	
1 Egia	14 puntu
2 Urnieta	14 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
12:00 Urnieta- Urola / Ig, 15	

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK	
Saieko-Leizaran	36-35

SAILKAPENA	
1 Saieko	16 puntu
5 Leizaran	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
11:30 Leizaran- Egia / Ig, 15	

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK	
Ordizia-Leizaran	30-41

ASTEBURUKO PARTIDA	
19:00 Urnieta- Ereintza / Lar, 14	
17:30 Leizaran- Egia / Lar, 14	

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK	
Urnieta-Ereintza	38-17
Aloña Mendi-Leizaran	20-32

SAILKAPENA (1. TALDEA)	
1 Urnieta	14 puntu
2 Eibar	14 puntu

SAILKAPENA (2. TALDEA)	
1 Pulpo	14 puntu
2 Leizaran	14 puntu

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK	
Leizaran Horia-Donibane	18-23
Leizaran-Eibar	18-35
Ereintza-Urnieta	21-27

ASTEBURUKO PARTIDA	
16:00 Leizaran Horia-Eibar / Lar, 14	
17:15 Urnieta-Amenabar / Lar, 14	

GIPUZKOA, KADETE NESKAK	
Ormaiztegi-Leizaran Horia	8-22
Ereintza-Urnieta I.M	12-22
Ordizia-Leizaran	8-31

ASTEBURUKO PARTIDA	
10:15 Leizaran- Elgoibar / Lar, 14	
11:00 Urnieta- Bera Bera Urdina / Lar, 14	

ARETO FUTBOLA	
LIGA, 1. JARDUNALDIA	
Euskalduna-Xuga Gure Txokoa	5-1

SAILKAPENA	
1 Oiartzun	23 puntu
5 Euskalduna	17 puntu

SASKIBALOIA	
SENIORRAK 3. MAILA	
Zurrut-Eibar	45-48

SAILKAPENA	
1 Astigarraga	10 puntu
7 Zurrut S.K.	7 puntu

JUNIORRAK	
Ganbara-Grupo EME Oiarso	27-56

SAILKAPENA	
1 Igaratza	10 puntu
8 Ganbara	5 puntu

KADETEAK	
SAILKAPENA	
1 Antigua Luberrri -A-	12 puntu
11 Ganbara	5 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
19:30 Ganbara- Igeldo / Lar, 14	

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 12

ANDOAIN Trukegunea

Ekogunearekin eta beste hainbat udalerriekin elkarlanean, jostailuak trukatzeko aukera dago.
Allurralde, Arrate.

"Sarobek 25 urte". Atrezzoa, jantziak, kartelak, ikus-entzunezkoak... erakusketa dotorea prestatu dute.
Abenduaren 15era arte. Sarobe.

ANDOAIN Erakusketa

"Esencia eta Existence".
Abenduaren 20ra arte. Bastero.

URNIETA Solasaldia

Bake eta bizikidetzat jardunaldiak.
"Gazteak, memoria eta transmisioa", Iker Usonen eta Leire Ostizaren eskutik.
19:00, Lekaio.

ANDOAIN Urteurrena

Irunberriren XXI. urteurreneko ekitaldiak.
Lehenik pintxo tonbola eta ondoren bertso musikatuak Oihana Iguaran, Haritz Mujika eta Unai Ormaetxea, Tomas Lizardi eta Unai Muñozekin.
19:00, Pintxo tonbola. Irunberri.
21:00, Bertso musikatuak. Irunberri.

OSTIRALA 13

URNIETA Dantza

"5 days to dance" egitasmoaren baitan, DBHko 3. mailako ikasleek landutakoa erakutsiko dute. Saroberen 25. urteurreneko ekitaldia.
18:30, Sarobe.

ANDOAIN Urteurrena

Irunberriren XXI. urteurreneko ekitaldiak.
Kantu kalejira, Euskal Herriko mus txapelketa eta DJ saioa.
20:00, kantu kalejira.
22:00, mus txapelketa. Irunberri.
23:00, DJ saioa. Irunberri.

ANDOAIN Antzerkia

"Argiaren Hautsa", Vaiven Teatroa.
21:30, Sarobe. 12 euro.

LARUNBATA 14

ANDOAIN 1969koen bazkaria
1969an jaioetakoen bazkaria.
Gaztañaga sagardotegia.



Lourdes Iriondo Udal musika eskolako ikasleak, artxiboko irudian. UDALA

URNIETA Lourdes Iriondo Udal musika eskolako ikasleen emanaldiak

Eguberrietako oporraldiaren atarian, ikasleen musika emanaldi sorta.
Abenduak 16, astelehena. 18:30, ikasleen emanaldi orokorra Saroben.
Abenduak 17, asteartea. 18:30, ikasleen emanaldi orokorra Saroben.
Abenduak 18, asteazkena. 17:15, tailerreko ikasleen saioa Saroben.
Abenduak 18, asteazkena. 18:30, ikasleen emanaldi orokorra elizan.
Abenduak 19, osteguna. 18:30, ikasleen emanaldi orokorra Saroben.

URNIETA Txapelketa

Mus txapelketa azkarra, Santa Kruz elkartearen eskutik.
15:30, Izen-ematea elkartean.

ANDOAIN Urteurrena

Irunberriren XXI. urteurreneko ekitaldiak.
Bazkideen patata tortilla lehiaketa eta gauean 80-90 hamarkadako musika.
19:00, patata tortilla lehiaketa.
22:00, DJ saioa. Irunberri.

URNIETA Musika

Tenpera eta Ro musika taldeak.
Saroberen 25. urteurreneko ekitaldia.
22:00, Sarobe. Doan.

ANDOAIN Kontzertua

Dingwash roots eta reggae taldea, Skakeo ska eta punk taldea eta Guideon Force Selektors dub taldea.
23:00, Gaztetxea. 6 euro

IGANDEA 15

URNIETA Erakusketa

Saroberen 25. urteurreneko erakusketa: Atrezzoa, jantziak, irudiak, afitxak, laburmetraiak...
Azken eguna, Sarobe.

ANDOAIN Haur antzerkia

"Kaskarot", Atx konpainiaren eskutik.
17:00, Bastero. 4 euro.

ANDOAIN Urteurrena

Irunberriren XXI. urteurreneko ekitaldiak.
Talo tailerra haurrentzat.
17:30, talo tailerra. Irunberri.

OSTEGUNA 19

ANDOAIN Kontzertua

"Xomorroen gabonak".
18:00, Bastero.

URNIETA Bingoa

Jokoa jubilatuen egoitzan.
17:30, Denda Berri.

URNIETA Gabonak

Jaiotzaren piztuera.
18:00, Etxeberri plaza.

URNIETA Erakusketa

"Puertas" erakusketaren irekiera ekitaldia. Urtarrilaren 7ra arte zabalik.
19:00, Lekaio.

OSTIRALA 20

ANDOAIN Kontzertua

Eguberri Umama.
21:30, Bastero. 8 euro.

URNIETA Ipuin kontaketa

Ixabel Agirresaroberen eskutik.
17:30, Ludoteka.

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Bruce Springsteen western stars
Ab. 12: 20:15.
El hoyo
Ab. 14: 19:30, 22:00.

Ab. 15: 19:30.
Ab. 16: 19:30, 22:00.

URNIETA
SAROB
La trinchera infinita
Ab. 15, 18:00.



SINOPSISIA



El hoyo (The platform)

Zuzendaria: Galder Gaztelu-Urrutia. **Gidoia:** David Desola, Pedro Rivero. **Aktoreak:** Ivan Massagué, Antonia San Juan. **Herrialdea:** Espainia (2019). **Generoa:** Zientzia fikzioa, thrillerra. **Iraupena:** 94 min.

Zientzia fikzioa eta thrillerra

Galder Gaztelu-Urrutia bilbotar zinema zuzendariaren zientzia fikziozko filma. Plataforma itxi batean solairu bakoitzeko bi pertsona daude, eta besteek aurretik dastatutako janaria jasotzen dute.

Iraunbizitzea da plataformako solairu bakoitzean bizi direnen aukera bakarra. Aurtengo Goya sarietan gidoia, efektu bereziak eta zuzendaritza berria ataletarako hautagaietakoa da.

Urnietako Santa Kruz elkartea

Urnietak elkarteak urteari amaiera emateko bi hitzordu antolatatu ditu:

Abenduak 14, larunbata Mus txapelketa azkarra

Izen ematea egun berean egingo da 15:30ean hasi eta 16:00ak bitarte. Bikote bakoitzak 25 euro ordainduko ditu. Lau aurrenekoentzat sariak:

- 2 txapel, 2 arkume, 2 sagardo lote.
- Arkume 1, 2 sagardo lote.
- 2 paletilla, sagardo lote.
- 2 baserriko oilasko, 2 sagardo lote.

Abenduak 28, larunbata Ehiza txapelketa

Ehiza xehea txakurrarekin, herri mailako txapelketa. Adarramendin izango da, 09:00tan hasi eta 13:00ak arte. Prezioa 25 eurokoa da (4 pieza ehizari bakoitzarentzat). Izena emateko epea abenduaren 23an amaituko da. Elkartean bertan eman behar da izena.

Sari banaketa Besabin egingo dute, txapelketa amaitzean. Parte hartzaileek egun berean afaltzeko aukera izango dute Santa Kruz Elkartean.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Enara Arevalo
Gure Enarak abenduaren 20an 5 urte beteko ditu. Zorionak asko maite zaitugun etxekoan partez!!!



ANDOAIN
Maddi Loiarte
Hamarkada bat jada abenduaren 22a loteria tokatuko balitzaigu bezala ospatzen dugula... Maite zaitugu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

diseinua@aiurri.eus

Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna. **Arantzibia 4-5, behea** Etor zaitez bulegora, Andoainera. **Whatsapp bidez:** 619 163 537.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 14 eta igandea 15
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 59 24 15 Andoain.

URNIETA

Larunbata 14 eta igandea 15
URRUTIA-MARTIN: Etxeberri, 1.
943 557 738 Hernani.

GAUEZ

ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola.
943 336 022 Hernani.



Sagardozale elkarteko kideek aurkezpen ekitaldia egin zuten Donostian. SAGARDOAROUTE

Sagardo uzta oparoa izan da aurtengoa

Donostian, arrakasta handiz antolatzen duten 'Sagardo Apurua' zikloan, aurtengoari dagokion sagardoa aurkeztu dute. Pozik daude, kopuruan eta kalitate mailari dagokionez uzta oparoa izan delako. Laster zabalduko dituzte sagardotegietako atea

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aurtengo uzta prest dago sagardotegietan, urtarrilean abiatuko den Txotx garaian dastatzeko. Sagardozale elkartearen arabera, "aurtengo uzta oparoa izan da, bai kopuruz eta bai kalitatez". Aroma aldetik intentsitate handikoa eta gorputz eta izaera handikoa da. Txinparta finekoa eta alkohol kopuru baxuagokoa.

Ekoizleek emandako datuen arabera, aurtengo udaberria eguzkitsua izan da eta loraldi luzea izan dugu. Horren ondorioz, lore kopuru handia izan dugu gure sagarrondoetan. Sagar aleari dagokionean, hasierako sagar goiztiarrak txikiagoak izan dira eta beranduago bildutakoak handiagoak. Dena den, sagarraren errendimendua altua izan da".

Txotx garaia arrakasta handiko ohitura da Euskal Herriko sagardotegietan. 800.000 bisitari inguru izaten omen dituzte, urtarrilean hasi eta maiatzera arte. Geroz eta sagardotegi gehiago dira urte osoan edo denboraldi luzeagoan zabaltzen dutenak ere. Eskualdeko sagardogileek Eguberrietako jaiak igaro eta berehala irekiko dituzte atea.

'Sagardo Apurua' irudi bidez



Urumean barrena, sagardoa Buruntzaldetik Donostiara bidean. SAGARDOAROUTE



Behin Donostian, idiek eraman zituzten kupelak Boulevardera. SAGARDOAROUTE



Boulevardean sagardo gunea ipini zuten, hilaren 6tik 8ra. SAGARDOAROUTE



Maddi Mendibil. DANNOBAT

Euskararen erabilera sustatzeko lehiaketa

"Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia" lemapean, euskara sustatu du Danobatgroup taldeak

Erredakzioa ANDOAIN

Euskararen eguna ospatzeko, Danobatgroup kooperatiba taldeak bi lehiaketa antolatu ditu, bata bertako langileei zuzendutakoa eta bestea kooperatibak dituen herrietako gizarteari zabaldutakoa.

Langileei zuzendutako lehiaketan, taldeka parte hartzeko ariketa batzuk egin behar izan zituzten. Garazi Lertxundi eta Nerea Galarzak osatutako taldea izan da irabazlea.

Gizartera zabaldutako ekimean parte hartzeko, berriaz, Danobatgroup-ek bere eguneroko lanean erabilienak diren hitz tekniko osatutako hiztegia hainbat kontsulta egin behar ziren. Horretarako, parte hartzailea www.danobatgroup.com webgunean murgildu behar zen.

Parte hartzaile guztien artean Basque Culinary Center eskolako jatetxean bi laguntzako 360ºko esperientzia gastronomikoa izateko aukera zozkatu zuten. Aurtengo edizioan Maddi Mendibil izan da irabazlea.

Horretaz gain, taldeko kooperatiba bakoitzak arrakasta handiz ospatu du euskararen eguna euskarari mezuak idatziz, bi-deoren bat sortuz, kafe eta bizkotxo dastaketak eginez... batzen gaituen lemarekin bat eginez.

Leitzaran bailarako azken mohikanoa

Juan Inaxio Irulegi Garmendia astelehenean hil zen, 64 urte zituela. Leitzarango bailaran bizi zen azken gizakia zen, bizi-filosofia berezikoa. Asteazkenean, Errekaldeko beilatokian azken agurra eskaini zioten senitarteko eta lagunek

Xabier Lada ANDOAIN

Andoaindik Leitzarako Plazalako naturbidearen 12. kilometro aldean, Olloki eta Ameraun artean kokatzen den Beñes baserrian (Berastegi) bizi izan zen 70eko hamarkadaz geroztik. Naturaz eta animaliez inguratutako bizi-modua hautatu zuen, kontsumo gizarteari uko eginez, eta tinko eta luzez eutsi izan dio bizi-filosofia horri, harik eta gaixotasun larri bat ate joka heldu zaion arte.

Aspalditxo desagertu ziren Leitzarango bailara sakona humanizatzen zuten ikazkinak, burnigileak, harginak, trenbideak langileak... eta kasik artzainak. Harrez geroztik, esan daiteke Irulegi zela bertan geratzen zen azken gizakia, azken mohikanoa.

Gaztetan, 15 urte bete arte, Arantzazuko fraideekin egin zituen ikasketak. Berak kontatu ohi zuenez, heziketa bortxan eta autoritarismoan oinarritutako diziplina bizitu zuen barnetegian. Han bi aukera omen zeuden: matxinatu ala otzan jokatu. Berak lehen aukeraren alde egin zuen. Txikitatik zekarren hitz jarioaz baliatu zen barnetegiko arauen aurkako jarrera agertzeko, eta horren ondorioz, kanporatu egin zuten, errebelde samarra izatea leporatuta.

Magistaritzako ikasketen bidetik segi zuen, eta Donostian eta Errenteriako institutuetan aritu zen hurrengo urteetan. Euskal Herrian, mugimendu antifrankista indarberrituta agertu zen 60 eta 70eko hamarkadatan 36ko gerra zuzenki bizitu ez zuen belaunaldi berri baten eskutik, eta testuinguru historiko horretan, Irulegiren etorria maiz nabarmendu zen, ikasleen mobilizazio eta greba egunetan batik bat.

Estatu biolentziaren biktima

Frankismoaren azken urtetan eta trantsizioan oso zigortua



Juan Inaxio Irulegi Garmendia, 2014ko abenduaren 24an ateratako argazkian. AIURRI

1975EAN ANDOAINGO GUARDIA ZIBILEK HORMAREN KONTRA JARRI ETA BELAUNEAN TIRO EGIN ZIOTEN

izan zen Irulegi. Hiru aldiz atxilotu zuten, lege kanpoko ezkerreko alderdi bateko militantea izateagatik, eta hirutan torturatua izan zen 1971-1976 epealdian.

1975ean, gainera, Andoaingo kuarteleko guardia zibilek kalean hormaren kontra jarri, eta belaunean tiroa egin zioten.

Andoaingo Udalak eta "Oroituz, Andoainen" elkarteak joan den ekainean Tolosa eta Buenos Airesko (Argentina) epaitegietan frankismoaren inpunitatearen aurkako kereila aurkeztu zuten, bertan zen Irulegiren kasua Andoaingo beste ehunka kasu-ekin batera.

Kereilarako testigantzak eta dokumentazioa biltzeko helburuz, Oroituz elkarteak biktimen arre-

tarako bulegoa ireki zuen 2018ko abenduan, eta Irulegi izan zen bertaratutako zenetako bat. Orduan hark adierazi zuenez, 17 urte zituela atxilotu zuten lehenbiziko aldiz, 1971ean. Ikastetxeetan ordena nahastea leporatu zioten, eta hiru egunez inkomunikatuta eduki zuten, Donostiako Gobernu Zibilean. Tortura fisiko eta psikologikoak jasan zituen orduan, gorputz osoan kolpeak batik bat. Irulegik aitortu zuenez, guardia zibilek, kolpatzeko, Andoaingo etxeko erregistroan hartu zioten Che Guevararen erretratua erabili zuten. Polizia-ekin kolaboratzea proposatu zioten, jipoia etetearen truke, baina berak ez zuen halakorik onartu.

Martutenen aste batzuk igaro zituen preso, eta 1974an, Madril Ordena Publikoko Epaitegian (TOP) epaitu zuten. Txiki Benegas izan zuen abokatua. Adineaz txikikoa zela eta, baldintzapeko askatasunean utzi zuten aske.

Harrezkero Andoainen markatua egon zen bertako guardia zibilen begietara eta etengabeko

jazarpena jasan zuen, Irulegik esan zuenez. 1975eko irailean frankismoak ETako bi kide eta FRAPeko hiru fusilatu zituela eta, hainbat mobilizazio burutu ziren. Andoainen, Guardia zibilek hamarnaka lagun atxilotu eta kuartelean eduki zituzten, lege kontrako manifestazioetan parte hartzea leporatuta. Juan Inaxio Irulegi horietako bat izan zen. Bertan, ia guztiek jasan zituzten tortura fisiko eta psikologikoak. Ondorengo egunetan, Irulegi eta beste hainbat atxilotu Martutenera bidali zituzten hilabeteko zigorra betetzera, ehun mila pezetako isuna ordaindu nahi ez izateagatik.

Espetxetik irten eta agudo, azaroaren 11n, Agustin Leitzakalean, paisanoz zihoazen Andoaingo hiru guardia zibilek Irulegi hormaren kontra jarri, eta batek belaunean tiro egin zion. Salaketa jarri zuen Irulegik, eta prozesu judizial luze batean, Joaquin Navarro epaileak arrazoia eman zion. 1982ko ekainean, epaileak Espainiako estatua eta Manuel Sanchez Valles guardia zibila ordainsaria ematera derrigortu zituen. Sententziak estatuari zein Guardia zibilari leporatu zien epailearen errekerimenduei muzin egin izana; estatuak trabak jarri omen zituen guardia zibilak deklaratu ez zezan. Estatuak eragindako biktimei aitortza eskaintzerako orduan salbuespentzat jo zuten epai hura, eta halaxe aitortu zuen epaileak berak liburu batean (*Fulgor de libertad. El estado contra Euskal Herria*. Txalaparta, 2001).

Irulegik 1976ko urriaren 11n jasan zuen hirugarren atxiloaldia. Egun batzuk lehenago ETak Juan Mari Araluze Gipuzkoako Aldundiko presidentea eta Jose Maria Elizegi txoferra eta Alfredo Garcia, Luis Francisco Sanz eta Antonio Palomo poliziak Donostian erail zituen. Guardia zibilek sarekada masiboa burutu zuten Gipuzkoan barrena. Tartean, hiru andoaindar zeuden: Xabier Arberas, Antonio Miron eta Juan Inaxio Irulegi. Antigua-ko kuarteleko egonaldian era guztietako torturak jasan zituzten; heriotza mehatxuez gain, besteak beste, *kirofanoa* eta *bañera* delako tortura teknikak. Libre geratu ziren laugarren egunean, inolako kargurik gabe.

Juan Inaxio Irulegi Garmendia 1954an jaio zen Andoainen, eta bi alabaren aita zen.